

## Sarean jarri dute, dohainik, Fagor Etxetresna kooperatibaren krisia eta ondorengo itxiera aztertzen duen liburua

2016/05/31

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lanki ikertegiak Interneten jarri du, doan, *Arrasateko kooperatibagintzaren dilemak eta erronkak. Fagor Etxetresnak kooperatibaren krisiaren ondorioak* liburua. Igor Ortegak eta Leire Uriarte ikertzaileek idatzitako liburuak aztertzen ditu Fagor Etxetresna kooperatibaren krisia eta ondorengo itxiera. Liburuaren bi bertsio daude aukeran, euskarazkoa eta gaztelerazkoa.

- **Euskarazko bertsioa:** *Arrasateko kooperatibagintzaren dilemak eta erronkak. Fagor Etxetresnak kooperatibaren krisiaren ondorioak.* (PDF)
- **Gaztelerazko bertsioa:** *Retos y dilemas del cooperativismo de Mondragon. Tras la crisis de Fagor Electrodomésticos.* (PDF)

Interneten jarri aurretik ere, oso harrera ona izan du liburuak, eta lanaren bi argitalpen egin behar izan dituzte. Izan ere, lana argitaratu eta sei hilabetera, agortuta zeuden kaleratutako 1.000 aleak. Bi izan dira arrakasta horren gakoak; batetik, Fagor Etxetresnaren itxierak sortutako ikusmina, eta, bestetik, kooperatibetako langileen artean liburuak piztutako interesa, hala, taldeko zenbait kooperatibetako Batzar orokorretan banatu egin dituzte aleak bazkideen artean.

Lana idazterakoan, egileen helburuak izan dira Fagor Etxetresnaren krisiaren gakoak ulertzea eta irakaspenak ateratzea kooperatiba horren esperientziatik. Horretarako, ikertzaileek jaso dituzte hainbat kooperatibetako arduradunek eta bazkideek Arrasateko esperientzia kooperatiboaren erronken gaineko hausnarketak.

Liburua kaleratu da Lankik argitaratzen duen Lanki Koadernak bilduman.



Bi argitalpen egin dira, euskaraz eta gazteleraz.